

ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA EGUZKI-INSTALAZIO FOTVOLTAIKOEN INSTALAZIO ETA MUNTAKETAREN ARLOAN

PROIEKTUAREN HELBURUA

Eibarko langabeen edo lan prekarioa dutenen laneratzeko gaitasuna hobetzea:

- Formazio espezifiko eguzki-instalazio fotovoltaikoen instalazio eta muntaketa arloan. 66 ordu.
- Sektoreko enpresekiko jardunaldia.
- Praktikak enpresan.
- Laguntza pertsonalizatua laneratze-prozesuan.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Eibarren erroldatua egotea.
- Langabezia-egoeran egotea edo lan prekarioa* edukitzea eta Lanbide-n izena emanda egotea.
- Gaztelaniaren ahozko nahiz idatzizko ulermen-maila egokia izatea.
- Positiboki baloratuko da Elektrizitate arloan esperientzia profesionala edota ezagutzak izatea.

** Honako hauek hartzen dira lan prekariotzat: iraupen jakineko kontratuak, urtebetetik beherako iraupena dutenak, lanaldi partzialeko kontratuak eta 1.000 eurotik beherako hileko ordainsari garbia duten kontratuak, aparteko ordainsarien hainbanaketa barne.*

ESKAERA EGITEKO EPEA:

2023ko irailaren 11tik 29ra arte (biak barne).

TRAMITATZEKO BIDEAK:

- **Presentziala:** [PEGORA \(Herritarren Zerbitzurako Bulegoa\)](#) Untzaga plaza 1. Beheko solairua. **Goian adierazitako baldintzak betetzen dituen pertsonak edo haren ordezkari legalak joan beharko du. Programan parte hartzeko eskaera aurrez aurre beteko dute PEGORako langileek.** Itxaronaldiak saihesteko, hitzordua eska daiteke PEGORAn. Hitzordua nola eskatu:

Udal webgunearen bitartez: [hitzordua eskatu PEGORAn.](#)

Telefonoz: 943 70 84 00 / 010.

- **Elektronikoa:** Udalaren www.eibar.eus webgunearen bidez. Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- Lan-bizitza.
- Curriculum vitae eguneratua.

- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazioa aurkeztu behar.

PROGRAMAREN GARAPENA

1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA.
2. FORMAZIOA.
 - Eguzki-instalazio fotovoltaikoak instalatu eta muntatzea. 66 ordu.
3. SEKTOREKO ENPRESEKIKO JARDUNALDIA.
4. PRAKTIKAK ENPRESAN (gutxienez 100 ordu).
5. LAGUNTZA LANERATZE-PROZESUAN.